



**HAL**  
open science

## Gipuzkera Zaharreko aditzak: deskribaketa eta corpusa

Urtzi Reguero Ugarte

► **To cite this version:**

Urtzi Reguero Ugarte. Gipuzkera Zaharreko aditzak: deskribaketa eta corpusa. 2010. artxibo-00492770v2

**HAL Id: artxibo-00492770**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00492770v2>**

Preprint submitted on 7 Jan 2011

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# **Gipuzkera Zaharreko aditzak: deskribaketa eta corpora**

**Urtzi Reguero Ugarte  
(EHU-UPV)**

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Euskararen historia<sup>2</sup> hobeto ezagutzeko, beharrezko dugu euskalki zaharren<sup>3</sup> historia ere ezagutzea. Mitxelenak erakutsi zuen (1981) gaur egun ditugun (eta euskararen historian lekukotuta dauden) euskalkiak Euskara Batu Zahar (EBZ) batetik datozela. Nolanahi ere, ditugun lekukotasunetan euskara dialektala besterik ez zaigu agertzen. Beraz, filologia zorrotz eta zehatz<sup>4</sup> bat beharrezkoa da euskalkien, eta euskararen beraren, historia ezagutzeko (ik. Esaterako, honetaz Lakarra, 2003). Honekin ez dugu esan nahi hemen filologia zehatz eta zorrotz hori egingo dugunik, denborak eta beharrezko ezagutzak mugatu xamarrak baititugu.

Bizkaiera Zaharra aztertuxeago badago ere, gehien aztertu den euskalkia hauxe genuke (cf. Lakarra 1986, 1996), hutsune handia ikusten dugu gainerako euskalkiei gaineko azterketa historiko edo diakronikoei dagokienez. Lan honek Gipuzkera Zaharra (GZ) aztertzeko ekarpen bat izan nahi du. Ez da, ordea, GZ bere osotasunean aztertuko aditzetara soilik mugatuko baikara. Esaten da lehen testuak idazten hasi zenerako, gaur egungo aditz sistema osoa sortuta zegoela. Lan honetan, euskararen aditzen sistema GZan nolakoa zen ikusiko dugu, horretarako aditz sistemaren deskribaketa, azterketa eta aditzon korpua da lan honetan dakarkiguna. Nolanahi ere, lan honen helburua GZren eta, oro har, euskararen historiari ekarpen ahal denik eta interesgarriena egitea da. Aditzaren deskribaketarekin hasi aurretik, laburki GZaren definizio bat emango dugu eta denboran eta espazioan kokatu.

---

<sup>1</sup> Lan hau Euskal Filologiako 4. urtean egindako 'Euskal Hizkuntzalaritza diakronikoko gaiak' ikasgairako egin nuen, bihoazkie ene eskerrik beroenak Gontzal Aldai irakasleari lan hau egiteko aukera eman eta zalantzak argitzeagatik, Céline Mounolei bere hainbat artikulu eskuratu, zalantzak argitzen laguntzeagatik eta egindako oharrengatik, Ariane Ensunza ikaskide eta lagunari lan hau entregatu aurretik irakurri eta bere iritzia emateagatik. Eneak dira dauden akats eta hutsegiteak.

<sup>2</sup> Historia aipatzean, Mitxelenak *Lenguas y protolenguas* (1963) lanean definitu zuen historiaz ari gara. Hau da, hizkuntzaren lehen lekukotasunerik aurrerako garaiaz.

<sup>3</sup> Euskalki zaharrak aipatzean, EBZ ondoren sortu bai baina, lehen lekukotasunen garaiko euskalkiez ari gara,, 1740 aurreko euskalkiez (data zehatz horren arrazoiaz ik aurrerago.).

<sup>4</sup> Meilleten esana gogoan: "hizkuntzalariak filologia zorrotzenaz baliatu behar du: batzuetan uste izan da hizkuntzalariak nahikoa duela gutxi gorabeherako hurbilketa filologikoekin; guztiz alderantziz, filologi metodorik zorrotzenek eskaintzen dioten zehaztasun eta zorrotzasun guztiaren beharra du" (2001 [1925]:104)

## 2. Gipuzkera Zaharra definitzen

Esan bezala, lan honetan Gipuzkera Zaharra (hemendik aurrera GZ) izango dugu aztergai, zehatzago esanda GZeko aditzak. Baina hasi aurretik beharrezko litzateke GZ definitzea. GZtzat tradizioz gipuzkera esan zaion horren aitzindari-edo dena hartu dugu, beraz, Gipuzkoa izanagatik ere, Deba arroko testuak alde batera utzi ditugu, hain zuzen ere, mendebaldeko euskaraz idatziak baitaude. Nolanahi ere, *Contr.*eko lehen oinoharrean Debako ‘lauko’ bat dator zeinaren hainbat zantzuk gipuzkeratzat hartzeko aukera ematen duten: *Iziartikan* ‘Itziartik’, *nere* ‘neure’, *zeron* ‘zeuen’, *gera* ‘gara’ *aundiak* ‘handiak’, *degu* ‘dugu’. Hala ere, gipuzkerari berari ez dagozkion ‘*etorri-zaku*’ edota ‘*zaralako*’ formak ere agertzen dira. GZeko lekukotasun gisa hartzeko beste arrazoi bat da azken euskalkien mapan (Zuazo, 1998) Debako euskara erdialdeko euskalkitzat hartua izan dela.

Muga geografikoa finkatua, koka dezagun GZ denboran. Amaiera muga hau 1740 inguruan jarri da eta ez modu arbitrario batean, Aita Larramendik egindako lanen argitalpen garaia aintzat hartu dugu, eta ez arrazoi faltagatik, jakina baita Larramendiren eragina oso nabarmena izan zela geroko idazleengan eta Gipuzkera Literarioaren aitzindaria dugula (ik. Lakarra 1985b). Kronologikoki aztertuko dugun testurik berriena Larramendirena berarena da, 1737ko Azkoitiko Sermoia, hain zuzen ere.

Muga geografiko eta denborazko honek asko murrizten du eskura dugun testu corpusa, lekukotasun eskasa baitugu GZean idatzia, batez ere, BZarekin alderatzen badugu. Hauexek dira kontuan hartu ditugun lanak kronologikoki:

BK: Britainiako Kantorea (1491-1510)

EF: Tolosako Ezkontza Fedea (1557)

Mis: Miserere-a (XVI.mende bukaera)

AM: Agur Maria (1607)

TBI: Tolosako Bertso Iraingarriak (1619)

AzGu: Azpeitiko gutunak (1622)

FPGa: Frantziskanoen predikua, Gamarrarena (1648)

DLGu: Frai Domingo Lardizabalen gutuna (1655)<sup>5</sup>

FPLu: Frantziskanoen predikua, Luzuriagarena (1686)

Lauko: Debako 'lauko'a (XVII.m)

OA: Otxoa Arinen *Doktrina Kristianaren Explikazioa* (1713)

LBp: Lasarteko bertsopaperak (1716)

Iraz: Irazustaren *Doktrina kristiana* (1737)

AS: Larramendiren Azkoitiko Sermoia (1737)<sup>6</sup>

Isasti gipuzkoarra bazen ere, bere errefrauak alde batera utzi ditugu errefrauak izanik arkaizanteak baitira eta aztergai dugun garaia baino lehenagoko garai bateko isla bailitzateke. Bestalde, zerrendak luze xamarra badirudi ere, ez da dirudiena, denera 150 orri nekez lortuko baikenituzke.

### 3. Gipuzkera Zaharreko aditzak: deskribaketa

Atal honetan GZko aditzen deskribaketa sinkroniko bat egingo dugu, deskribaketa egitera bakarrik mugatuko gara. Euskal aditzaren sailkapena egiteko, ohikoa izan da trinko eta perifrastikoen artean egitea; dakargun hona Azkarate eta Altunaren (2001: 151) aipua:

Gramatika guztiek sailkatu dituzte aditzak irizpide honen [aditz forma trinkoak / perifrastikoak] arabera: forma bakarraz osatuak daudenak dira trinkoak, pertsona, numero eta aldiari dagozkion markak aditz erroaren inguruan biltzen dituztenak; perifrastikoak, ostera, bi osagai izaten dituzte, "aditz nagusi" deitu izan zaiona –aditzoina eta, indikatiboko formetan, aspektu marka biltzen dituenak– eta aditz laguntzailea, pertsona, numeroa aldia eta modua adierazten dituenak.

---

<sup>5</sup> Gipuzkeratzat hartu badugu ere, zalantza handiz hartu dugu, adizki forma batzuk GZeko beste testuetako adizki batzuekin bat egiten badute ere, beste batzuetan ez dator bat; esaterako 'degu' forma gipuzkerazkoa erabiltzen du, baina baita 'baduzu' ekialdekoagoa ere.

<sup>6</sup> Honako iturrietatik hartu dira testuok: Otxoa Arin eta Irazusta armiarma web orriko edizioa erabili da, 'Tolosako Bertso Iraingarriak' 'Frantziskanoen predikuak', 'Agur Maria' eta 'Ezkontza Fedea' Mitxelenaen *TAVetik*, Britainiako kantorea, Debako 'laukoa', Azpeitiko eta Frai Domingo Lardizabalen gutunak Sarasolaren *Contr.*etik, Miserere-aren euskarazko itzulpena Lino Akesoloren (1982) lanetik, Lasarteko bertso paperak, Satrustegik argitaratua, *Euskeratik* eta Larramendiren Azkoitiko Sermoia Lakarra (1985b) lanetik.

Guk ere, deskribaketa egiteko, aditzak bi multzo hauetan banatuko ditugu; batetik trinkoak eta bestetik perifrastikoak.

### 3.1 Adizki trinkoak

Iritzi zabaldua da euskararen historian aditz trinkoen erabilera murriztuz joan dela (ik. esaterako Azkarate & Altuna, 2001:154 edota Gómez & Sainz, 1995). Garai zaharragoetan gehiago erabiltzen bide zen gaurko euskararekin alderatuz. Hauxe da Gómez eta Sainzek esaten digutena (1995:238):

“Today, in contrast, there is universal agreement that the handful of verb which have synthetic forms preserve a state of affairs which must have been much more general in older times. In fact, old texts present a greater numbers of verbs with synthetic than are currently used”.

Horregatik, gaur egun ez dira asko forma trinkoa erakusten duten aditzak. Aztergai dugun GZ garaiko testuetan ere, forma trinkoak erakusten dituzten aditzak askoz gutxiago dira forma perifrastikoa dutenak baino, erabili ditugun testuetan aditz jokatuetatik trinkoak %30 dira eta perifrastikoak %70<sup>7</sup>. Modu beregainean, ez laguntzaile gisa, agertzen diren forma trinkoa erakusten duten aditzak hauexek dira: *egon, eduki, izan, iruditu, \*io, \*edun, jakin, eritzi, ibili, etorri, ezagutu, ikusi, \*-i-, joan, ekarri, eraman, egoki, egin*.

XVI. mendeko euskararen ezaugarrietako bat aoristo trinkoen erabilera da, hau da, forma trinkoek aspektu burutua adierazten dute, erabilera honen adibide garbiak (gaztelerazko itzulpena dutelako, batez ere) topa ditzakegu RS-n eta Isastiren errefracuetan, hona hemen Isastirenetik ateratako adibide bat: *Eliza ceguienac aldarea, aldarea ceguienac abadea*. El que hizo la iglesia, el altar; y el que hizo el altar, el abad. (30. errefracua, TAV 3.3.3.). Isastik erabili izanak, gipuzkoarra izanik, erakus lezake gipuzkeran inoiz erabili izan zela aoristo trinkoa, baina XVI. menderako galduta legoke, aurkitu ditugun lekukotasunak burutugabeak baitira, alegia, egun duten zentzua zuten.

---

<sup>7</sup> Kontaketa egiteko, ez ditugu erabili OA, Iraz. eta AS, testu luzeegiak baitira dagokigun lanaren apaltasunerako. Hala ere, ez dugu uste ehunekoak askorik aldatuko lirakeenik.

Nolanahi ere, lekukotasun gutxi ditugunez, ezin dugu gehiago jakin eta posible litzateke XVI. mendean Gipuzkoako lekuren batean edo bestean mantentzea.

### 3.1.1 Izan

Gaur egungo euskarari, aditz hau laguntzaile bezala agertzeaz gain, aditz nagusi bezala ere agertzen da. GZean ere, *izan* aditz laguntzaile bezala bai, baina aditz nagusi bezala ere agertzen dira. Funtsean, gutxi aldatu dira aditz honen forma eta esanahiak.

Euskalkien sailkapena egiteko *Izan* aditzaren forma jokatuak kontuan hartu izan dira, batez ere, orainaldiko *zu*, *zuek* eta *gu* pertsonen dagozkien orainaldiko formak gipuzkeraren bereizgarritzat hartu izan dira: *zera*, *zerate*, *gera*. GZean ere, forma hauek agertzen direla ikusten dugu:

AG: *Vedeincatua **cera** andre gucien artean.*

OA: *Bedeikatua **zerade** zu andee guztien artean.*

Mis. *Ene osasunako Jauna **zera** zu.*

AS: *Ezperen non **cerate** esquer gaistoco izarrac?*

OAnengan eta baita Iraz.rengan ikus dezakegunez, paradigma erregulartzen duen fenomeno gertatu da: analogia<sup>8</sup>. Fenomeno honen eraginez, *izan* aditzeko pluraleko formetan *-de* pluralgilea agertzen da:

OA: *zu ofenditua zu **zeradena** izanik.*

Iraz: *Zu **zeradena** izanagatik...*

Iraz: *bedeinkatua **zerade** zu andre guztien artean.*

*-de* erakusten duten forma hauek OA, Iraz., Mis., LBp eta ASn bakarrik aurkitu ditugu, ez besteetan.

---

<sup>8</sup>“ Analogy is sometimes described as 'internal borrowing', the idea being that in analogical change a language “borrows” from some of its own patterns to change other patterns” (Campbell, 2004:104)

Ohar gaitezen, bigarren pertsona singularra egiteko ‘zu’ erabiltzen dutenean ere, pluralari dagonion *-de* marka erabiltzen dutela. Honek kronologia erlatiboa finkatzeko pista bat eman diezaguke: jakina da ‘zu’ lehen plurala adierazteko erabiltzen zela eta geroa singularra izatera igaro zela. Ematen duenez, *-de* hori ‘zu’-k pluralaren zentzua galdu aurretik hedatuko zen *izan*-en adizkietara, ziurrenik *egon* aditzaren analogiaren bidez (cf. *gaude, daude...*) eta ondoren singular bilakatuko zen:

1. \*zu zera (plu.) ~ zu zaude
2. \*zu zerade (plu.) ~ zu zaude
3. zu zerade (sing.)

*Izan* aditzari dagokion taula, beraz, hauxe genuke<sup>9</sup>:

	<b>Orainaldia</b>	<b>Iragana</b>
<b>ni</b>	naiz	nintzan
<b>Hi</b>	haiz	hintzan
<b>Hura</b>	da	zan
<b>gu</b>	gera / gerade	*giñan
<b>zu</b>	zera / zerade	ziñan
<b>Zuek</b>	zerate	*ziñaten
<b>Haiek</b>	dira /dirade	ziran

Ezagun da euskararen fonotaktikaren ikuspegitik arraro samarra dela hitz amaieran txistukari frikari bat agertzea afrikatu baten orde. Horregatik, *naiz* eta *haiz* formentzat *\*naiza* eta *\*haiza* berreraiki izan da. Horren arrasto bat topa dezakegu GZean, batez ere, adizkiari kontsonantez hasten den atzizki bat gehitzen zaionean, berreraikitako *\*a* horren aztarna ikusten dugu:

OA: *Kristauba naizan bezela*

EF: *ezconçen nayçala*

AS: *naizanean*

<sup>9</sup> Izarño batez agertzen diren formak lekukotasunetan aurkitu ez direnak dira, horrek ez du esan nahi ez daudenik. Proposamena gaur egungo gipuzkeran eta garai hartako paradigmaren oinarriturik egin da. Taulak osatzeko, forma jokatu atzizki batekin agertzen bada ere, atzizkia kendu eta izarño gabe jarri dugu; esaterako, *ninsala* lekukotzen da, guk paradigmaren *nintzan* jarri dugu. Trinko moduan agertzen ez bada ere, laguntzaile bezala agertzen bada, izarñorik gabe jarri dugu. Bestalde, grafian gaurkotuan aurkeztu ditugu.



Beste zenbait adibidetan, ordea, \**a* hori galdua dagoela ikusten da eta -*z* eta atzizkiaren lehen kontsonantearen artean -*e*- epentetiko bat gehitu da:

Iraz: *arkitzen naizenean*

### 3.1.2. \**edun*

*Izan* aditzarekin batera, forma trinkoan gehien agertzen den atzitza \**edun* da. Esanahi aldetik, gaurko *eduki*-ren pareko genuke, baina garai hartan \**edun eduki* baino erabiliagoa zela ematen du datuek erakusten dutenez (ik 3.1.3 atalean *eduki* aditzari dagozkion forma jokatu lekukotuak). Gerora, *eduki* aditzaren hedapen bat gertatu da eta \**edun* laguntzaile bezala gramatikalizatzen joango zen, nahiz eta oraindik ez den erabat gramatikalizatu.

\**Edun* aditzari dagokionez, *ni*, *hi*, *zu*, *zuek* pertsonetan agertzen den -*e*- hori hartu izan da gipuzkeraren bereizgarritza: *det*, *dek/n*, *dezu*, *dezu(t)e*. GZe an ere forma hauek agertzen dira:

AzGu: *Esan dit çuc **deçula** beraç culpa, Çuc uste **deçu** monjac debela contentu gucia*

Mis: *asco **deçunesquero**, misericordiaz.*

Mis: ***esteçu** ofrendaric borondatean.*

OA: *bakoitzak **degun** kapazidadeaz, edo zentzuaz konforme*

Pertsona hauengan ez dugu aurkitzen -*eu*- duen forma zaharrik esaterako Gamiz idazle arabarrarengan ikusten dugun *deugu* bezala. Hala ere, 3. pertsonan -*eu*- zein hemendik eratortzen den -*eb*- dugu, bai orainaldian eta bai iraganean.

BK: *debala*

AzGu: *debela, eztebela, debala*

DLGu: *deu*

Mis: *debana, deu*

AS: *ezteu*

OA: *zeben, ezdeu...*

AS: *deuala*

Baina *-u-*dunik ere bada:

TBI: *duela, duen, eztuenean*

\**edun* aditzaren indikatiboko (Nor 3. pertsona) paradigma hauxe genuke:

	<b>Orainaldia</b>		<b>Iragana</b>	
<b>nik</b>	det	ditut	neban	nituan
<b>Hik</b>	*dek/n	*dituk/n	*huan	*hituan
<b>Hark</b>	du / deu /deb-	ditu	zeben	zituan / zituen
<b>Guk</b>	degu	ditugu	genduan	*genituan
<b>Zuk</b>	dezu	*dituzu	zenduan	*zenituan
<b>Zuek</b>	dezue	*dituzue	*zenuten	*zenituzten
<b>Haiek</b>	due / debe / debea?	Debe	*zeben	zituzten

Koldo Zuazok (2008:77) mendebaleko euskararen aditz morfologiako ezaugarriak erakustean, mendebaleko ezaugarritzat hartzen du orainaldiko 3.p.s.-ko *dau, daue, dabe* eta iraganaldiko formetan *-eu-* agertzean. Deskribapen sinkroniko bat egin nahiko bagenu, posible litzateke ezaugarri honi begiratzea euskalki bat beste batengandik bereizteko, diakronikoki begira, aldiz, ezin esan genezake mendebaleko ezaugarria denik GZean maiz agetzen baitzaigu. Sinkronikoki esango genuke Bk forma zahar bat mantendu duela eta Gk berritu egin duela, bien jatorrian forma bera baikenuke: \**dadu* > *dau* > *deu* > *du* edota \**naduen* > *nauen* > *naben / neuen* > *neben / nuen*

### **Beste zenbait trinko**

Goian emandako forma trinkodun aditzez gain, badira beste zenbait gehiago GZean agertzen direnak. Horiek guztiak batera azalduko ditugu ez baitira aurreko biak bezain ugariak. Hauexek dira aurkitu ditugun gainerako aditzak forma trinkoak erakusten dituztenak: *egon, eduki, iruditu, \*io, jakin, eritzi, ibili, etorri, ezagutu, ikus, eraman, \*-i-, joan, ekarri, egoki(tu), egin.*

➤ *Egon*

Agertzen diren aditz honen forma trinkoak dira<sup>10</sup>:

BK: *daode*.

Mis: *dago*.

Lauko: *daudenak, gaude, geunden*.

OA: *daude, nago, zaude, gaude, zeuden...*

Iraz: *daude, zaude, gaude, zeuden...*

AS: *dagoala, zegoan, guendela, bagueunde, bego, dago...*

Ikusten dugunez, BK-n oraindik ez da gertatu *ao > au* bilakabidea, Laukoan, OAengan eta Iraz.rengan, ordea, bai. Nolanahi ere, GZ lehen lekukotasunerako \*-g-bokalartekoa galduta agertzen da 3.p.pl.ean: *\*dagode > daode > daude*.

➤ *Eduki*

BK: *daduzca*

TBI: *educac, daduca*.

AzGu: *daducan*.

OA: *badauka*.

Iraz: *gauzkaten*

AS: *ceucana*

Gutxi dira *eduki* aditzaren forma lekukotuak, ikus dezakegunez, lekukotasun zaharretan *-d-* mantentzen da; berriagoetan, aldiz, galdurik dago. TBIn agertzen den *educac* forma trinkotzat hartu badugu ere, perifrastikoa izan zitekeen, agintera izanik kontrakzio aukera handiagoa izan baitezake. Trinkoa balitz, gaur galdua den forma bat genuke.

---

<sup>10</sup> Ez dira errepikatzen diren forma guztiak jarri, BK, Mis. eta Laukoan agertzen diren guztiak jarri ditugu.

➤ *Iruditu*

BK: *dirudi*.

LBp: *dirudiala*.

AS: *dirudi, dirudien...*

➤ *\*io*

BK: *dioe*.

AzGu: *diona, diodanean*

OA: *dio*.

AS: *diote, dionari, dionez*

➤ *Jakin*

TBI: *daquila*

AzGu: *badaquiçu, estaquit*

OA: *badakit, dakiala...*

Iraz: *dakizun, dakienari...*

AS: *aldaquizue...*

➤ *Eritzi*

TBI: *ceriçan*

AzGu: *deriçu*

OA: *deritzon, deritzo, deritza,*

Iraz: *deritza*

AS: *deritza*

AzGu ezik beste guztietan esanahi bera du aditzak, ‘deitu’ zentzua. AzGu-etan ordea, ‘maitatu’ zentzua dauka, aurretik *onegi* duela: “es de sobra conocido que *oneritzi* es la forma más empleada en la lengua antigua para ‘amar’” (*Contr.* 128 [262]). Gerora ezagutu den Lazarragaren testuan ere *oneritzi* aditza jokatua maiz agertzen da: *nik ezin*

*antzitu neidi ainbat denporan on derechadan gauzea, ene laztana akorda zatez zein on derechudan...* (f12. Patri Urkizuren ediziotik hartua) Horretaz gain badira beste hainbat testu, hegoaldeko zein iparraldeko, non *eritzi* agertzen den *maitatu* zentzuan<sup>11</sup>.

➤ *Ibili*

TBI: *oi abil, dabil.*

AS: *zabiltza*

➤ *Etorri*

BK: *datorrenean,*

AzGu: *çatoçela, baçatoç, datorrenean, baletor...*

OA: *datozen, betor, gatoz, dator, datozen, gatoz..*

Iraz. *betor, dator*

AS: *betor*

➤ *Ezagutu*

Mis. *badazagut*

➤ *Ikusi*

Mis. *Dakuskunean.*

AS: *badacust, dacusgun...*

---

<sup>11</sup> **oniritzi** (Lar, Añ (AN), H (G)), **oneritzi** (L arc.? ap. A; Lar *DVC* 274, H (+ -nh-)), **oneritsi** (SP), **oneritxi** (V-arroroz ap. A; H (V)), **oneretsi** (H (V)), **oneretxi** (Mic 5r, vEys, H (V)), **onderixtu** (H (V)).

I (Vb.). □ *Tr.* Documentado al Norte en autores antiguos desde Dechepare. Al Sur aparece durante los ss. XVI y XVII en RS, Beriayn, en un texto del s. XVII recogido en *ConTAV* y en Micoleta, y su uso aumenta ligeramente durante los ss. XIX y XX. La forma mejor documentada en la tradición meridional es *oniritzi*. Hay *on(h)eritzi* en Leizarraga y Etcheberri de Ziburu (-nh-); *oneritsi* en Beriayn (tbn. *oneritzi*), Pouvreau y Duvoisin, y *oniritxi* en *ArgiDL*. Hay además *onerexte-* en RS; *onheriste-* en Gasteluçar y *onereste-* en R.M. Azkue. En *DFrec* hay 13 ejs. de *oniritzi* y 5 de *oneritzi*. □ **I.** Amar, querer (bien). v. **onetsi**.

Ezagun da *ikusi ekusi*-tik datorrela. GZeko testuetan oraindik orain *ekusi* erabiltzen da.

OA: *gero ekusi, ta goza zegian bera betiko Zeruan, beraren Majestade Dibina ekusteko...*

Hala ere, Iraz.ak bi formak erabiltzek ditu: ***Ekusi det kristaba zerana***. Baina, ***Ikusi ez deguna sinistutzea***.

➤ *Eraman*

AS: *eztaramazu*

➤ *\*-i-*

LBp: *yndazu*

Iraz.: *iguzu*

➤ *Joan*

LBp: *goasemasu*.

OA: *dijoan*.

Iraz.: *dijoanean*.

Ikusten denez, GZean ere, gaur egun Gipuzkoan erabiltzen diren, ‘dijoa’, ‘nijoa’... formak erabiltzen ziren, 3. pertsona singularrean behintzat.

➤ *Ekarri*

AS: *cecartzien*

➤ *Egoki(tu)*

AS: *eztagoca*

➤ *Egin*

AS: *daguidan...*

### 3.1.3. Subjuntibo trinkoa

Sarasola AzGu-ez ari dela (*Contr.* 128 [262]), balio subjuntiboa duten zenbait forma trinko azpimarratzen ditu: *çeran*, *dirala* eta *dala*<sup>12</sup>.

*Jesus Ma(ria) dirala guerequin* (1-2 lerroak).

*Jesus M.<sup>a</sup> dala gurequin* (23-24).

*Jesús M.<sup>a</sup> dirala gurequin* (42-43).

*Esan dit gaztiga deguiçudala nayztebala monja çeran* (63-64).

Sarasolaren arabera, garaiko ezaugarri arkaiko tipikoena da subjuntiboa, baina guk ez ditugu horrelako kasu gehiago aurkitu (ik. Lafon 1943).

### 3.2. Aditz perifrastikoak

Ikusi ditugu zein diren GZean agertzen diren forma trinkoak. Hurrengo atalean aditz perifrastikoak deskribatuko ditugu. Aditz perifrastikoak Nor, Nor-Nork, Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork sailetan banatuko ditugu.

Euskaraz egitura perifrastikoen bidez aspektu bat baino gehiago adierazten dira, lanean ez dugu horren azterketa zehatzik egingo, baina argumentuen sailkapenarekin hasi aurretik aurkitu ditugun aspektuak zein diren adierazi eta adibideak emango ditugu:

---

<sup>12</sup> Egia esan, Sarasolak ‘dirala’ hirutan agertzen dela esaten badu ere, guk bi kasu bilatu ditugu. Horretaz gain, Sarasolak ez du ‘dala’ aipatzen.

1. Perifrastiko ez-burutua:

BK: *debeela erreguten, egozten digoela, acompanyacen debe...*

EF: *ezconçen nayçala*

TBI: *emaiten dira*

2. Perifrastiko burutua:

BK: *juntaduditu*

TBI: *etorri da, eman dio, egondu inçan...*

AzGu: *esan cidan...*

4. Aoristoa: Salmo Misererean bakarrik aurkitua:

Mis. *irten zenzan, benzutu zinzan*

5. Agintera, [aditza + \*ezan] edota [aditza + egin]:

AM: *eguimbidi, erregu eçaçu*

TBI: *iracurri eçac, eçar eyt, jan eguic*

AzGu: *esan eguiozu*

Mis.: *aparta ezazu, garbi ezazu...*

6. Subjuntiboa:

AzGu: *probey gayçala*

Mis: *ensalçadaçam, alabaçayzan*

7. Potentziala:

TBI: *ecin esan niazcaquec*

AzGu: *juango liçayote, nay neuque*

OA: *izango lizatean, izango lizate*

Iraz. *izango lizateke, salbatuko lizateke...*

8. Geroaldia

TBI: *egongo aiz*

AzGu: *eraguingo diogu, eztiçut eragocico, beratuco deçu, igaroco dira*



DLGu: *eguingo degun, galduco da,*

LBp: *emango digu, ybillico nais, esango dittut, ysango dira, esango degu*

Mis: *quenduco diraust, estet ez yçango, egongo dirade, yçango deu*

### 3.2.1. Nor

Nor paradigmako aditz laguntzailea, indikatibozko formetan, *izan* aditza da. Hona hemen testuetatik ateratako zenbait adibide:

BK: *yçango baita*

EF: *ezconçen nayçala*

TBI: *etorri da, egondu inçan, ematen dira...*

Mis: *eguingonayz*

AS: *pisatu zan*

Gorago 3.1.1. puntuan dakargun taula paradigma honetako laguntaileentzat ere lagungarri da.

Ahalerazko, aginterazko edo subjuntibozko formetarako, ordea, \**edin* erabiltzen da laguntzaile bezala:

Mis: *içambidi*

Lauko: *asi zaitetzte, izan zaitte, akorda zaitte.*

AM: *egumbidi*

Iraz: *izan bedi*

### 8.1.2. Nor-Nori

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Laburra: perpaus bakuna* liburuko aditz laguntzaileen paradigman, bi laguntzaile mota erabitzen dira: \**edin* eta *izan*. GZean ez da askotan lekukotzen paradigma honetako adizkirik, baina lekukotzekotan biak lekukotzen dira:

TBI: *sartu oy çaca, joan oy zariçca*<sup>13</sup>

Iraz: *deitzen zaiola...*

OA: *segitzen ez bazitzakan, deitzen zitzaion, kunplidu zitzaizkon, zor zitzaten...*

AS: *eguiten zaca...*

Ikusten dugunez, datiboa 3. pertsona singularra denean, honi dagokion komuntadura marka *-ka* eta *-o* izan daitezke. OAek, esaterako, bi morfemak erabiltzen ditu. Nor-nori aditz trinkoetan ere, *-ka* atzizkia topa dezakegu:

TBI: *ceriçan*

AS: *ehtagoka*

### 8.1.3. Nor-Nork

Paradigma honetako indikatiboko formetan aditz laguntzailea \**edun* izaten da. 3.2.2. atalean dakargun taulak honako ere balio du. GZ (eta egungo gipuzkera) beste euskalkietatik bereizteko erabili izan den ezaugarrietako bat \**edun* aditzaren forma jokatueta agertzen den *-e-* hori izan da: *det, degu...*

EF: *arçen dedala*

AzGu: *eguingo det, estuco*<sup>14</sup> *degu, ygaro degu...*

Mis: *irequiquo deçu...*

---

<sup>13</sup> Zalantza handiz hartu dugu azken hau adibide bezala, *-r-* hori zer den ez baitakigu, izan liteke hiperzuzenketaz txertatua izatea: *dira > dia, zaizka > zarizka*. Baina ez gaude erabat ziur.

<sup>14</sup> OEH: 'poner en aprieto'

3.2.2. atalean esan duguna errepikatzen dugu hemen ere, 3. pertsonan egun *-u-* beharrean *-eu-* agertzen da. GZko testuetan makina bat adibide dugu:

BK: *acompañacen debe, debeela herreguten*

EF: *aguinçacen deuen*

AzGu: *nay neuque, nay leuqueala, albaleu...*

AS: *ifiñi ceuala.*

Ahalera, agintera edo subjuntiboa egiteko orduan, beste laguntzaile bat hartzen du GZk. Laguntzaile postua beteko dutenak *\*ezan* eta *egin* aditzak dira:

AzGu: *ecarri beza, serbi deçaçula.*

Mis: *aparta eçaçu, renoba eçaçu*

AS: *icusi daguigun, eguin daguiquet*

### **Nor-Nori-Nork**

Nor-nori-nork motako paradigma egiteko, egungo euskaran hiru laguntzaile ezberdin erabiltzen dira: mendebalean, *\*edutsi*; erdialdean, *\*-i-*; eta ekialdean *\*eradun*. Paradigma hau da euskalkien arteko aldakortasun gehien erakusten duena, badirudi, beraz, paradigma berriena dela, besteekin alderatuta. Testuek salatzen digutenez, badirudi *\*-i-* erroa garai batean orokorra izan zela eta GZk eta erdialdeko hizkerek mantendu egin dutela, besteek, aldiz, lehenago edo beranduago galdu.

Esan bezala, GZean forma erabiliena, espero genukeenez, *\*-i-* da. Hala ere, OAK makina bat adibide ditu non *\*eradun* laguntzailea erabiltzen den. Hona hemen batzuk (adibideok Aranburu 1999 lanetik hartu ditugu): *dirautzut, dirauzt, dirautza, dirauzku, dirauzkagu, dirauztazu...* Mis.en ere badugu adibide bat: *quenduco diraust* ASn: *adierazoten diauzcu, berrituco ciauSCAN...* Hauekin batera, era berean, *\*-i-* ere erabiltzen du Oak eta Ask ere (OAREN adibideak Aranburu, 1999:102 lanetik hartuak): *diot, dizut, diet, dit, dio* edo *digo, digu, die, diogu, diegu, didazu...* AS: *dizu, diozu...* *\*-i-* ren edo *\*eradun*-en erabilerak, badirudi, numeroarekin lotura duela, singularra denean,

\*-i- erabiltzen baita, plurala denean, aldiz, \**eradun*. Honek aditzen kronologiarako zer esana ematen digu, numeroari dagokionez, plurala singularra baino gordetzailleagoa izan ohi da, beraz, honen arabera, \**eradun* zaharragoa izatea esperoko genuke. \*-i- ere zaharra dela onarturik, azalpen posibleetako bat \*-i- eta \**eradun* biak erabili izan direla inoiz, bakoitzak ere erabilera eta eremua zuela, eta gerora \*-i-k bere indarra eta hedadura hartu duela eta \**eradun*-in kendu pentsatzea litzateke.

Gainerako testuetan \*-i- da nagusitzen den forma:

BK: *digoe seguicen, egozten digoela*

EF: *ematen diodala, essaten didan, essaten diot,*

Ahalera, subjuntibo zein aginterazko laguntzaile gisa, *egin* erabiltzen da:

BK: *deguiola eman,*

AzGu: *gaztiga deguizudala*

TBI: *eçar eyt, jan eguic*

AzGu: *esan eguioçu, escribi deguiçudala...*

#### 8.1.4. \**ezan* / *egin*

Ezagun da mendebaleko<sup>15</sup> euskalkietan aginterazko, subjuntibozko eta ahalerazko formetan *egin* laguntzailea erabiltzen dela<sup>16</sup>. Erdialdeko euskaran bi formak erabiltzen dira gaur egun, baina ez gipuzkerako eremu guztian eta maiztasun berarekin. Ekar dezagun Lakarraren aipu bat hona (1996:183):

Ez dago euskalki horretako [GZeko] testuak arreta apur batekin irakurtzea – eta, jakina denez egiteko horrek ez du asti gehiegi eskatzen– subjuntibo, inperatibo eta ahaleran zen asimetriaz jabetzeko; hots adizkiak bi osagai (*nork-zer*) ala hiru (*nork-nori-zer*) izan, kontuak asko ezberdin zihoazen; halaber, adizkia singularrekoa edo anitzezkoa zen erro berezia hartu ohi

<sup>15</sup> Mendebala aipatzean, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako zati bateko euskaraz ari gara.

<sup>16</sup> Honen gaineko azterketa sakonago baterako, ik. Mounole (2007)

zuen. Zehatzago, bi osagai adizkietarako *egin* zein *\*ezan*-en formak hauta zitezkeen *nor* singularra bazen; *nor* anitza bazen *\*ezan*-enak erabili ohi ziren, eta *egin*-enak hiru osagaikoetan.

Goiko aipuan ulertzera ematen denez, *nor-nork* saileko aditzen laguntzaileak *\*ezan* eta *egin* izan daitezke, baina baldintza batekin, *nor* sg. denean biak har ditzake, pl. denean *\*ezan*. Nor-nori-nork sailekoetan, ordea, *egin* bakarrik erabiltzen da. Jarraian dakartzagun adibideak Lakarrak berak bere lanean emandakoetatik batzuk ekarri ditugu ona (Lakarrak erabilitakoak guk ere erabili ditugun testuak dira):

1. *Egin beza essan degun modua* (Otxoa Arin 134), *serbitu ceguian* (OA 11), *essan bece* (OA133), *aitari izan ceguian* (OA 26), *pagatu ciquealaric* (OA 164), *galdu cezaqueten* (OA 165), *ezagutu daguian...*
2. *Contadu bitça* (OA 135), *eutzi ditçaqueanac* (OA 139), *criatu ditceen* (Iraz. 41), *aditu ditzan* (OA 58), *itzuli ditzaque* (OA 24)...
3. *Itaundu beguio* (OA 168), *escribi dequiçudala* (AzGu), *ez deguigula utci* (Iraz. 24), *erregutu deguizula* (Iraz. 49), *eman deigun* (OA 58)...

Gainerako testuen irakurketa bat eginda, nor-nori-nork sailekoek *egin* erabiltzen dutela baieztatu daiteke

BK: *deguiola eman*

TBI: *eçar eyt*,

AzGu: *esan eguiçou, escribi dequiçudala*

Mis.: *kendu egidazu, biurtu egidazu*

Nor-nork saileko kasuetan, ordea, kontua ez da hain garbia. Datu basean sartu ditugun testuetan *egin* laguntzaileak bi adibide bakarrik aurkitu ditugu, Gamarra eta Luzuriaga frantziskanoen predikuan (gainera Luzuriagarena Gamarraren itzulpen bat da, cf. TAV 3.2.13). Adibide hauetan, *nor* singularra da:

FPGa: *euci eguiçu*

FPGLu: *utzi eguiçu*

\**ezan* euskalki guztietan lekukotzen den laguntzailea da, gerora bizkaieran eta arabako euskaran baztertu egin dena. Gipuzkeraren kasuan, aldiz, \**ezan* mantendu egin da (ik. Mounole, 2007), baina kasu batzuetan *egin* laguntzailea ere sartu da. Mounolek bere lanean GZeko testu guztiak<sup>17</sup> hartu eta kontaketa bat egiten du hiru multzotan bereizita; batetik, kontuan hartzen ditu laguntzaile emankor bezala erabiltzen dituztenak, bestetik laguntzaile sasi emankor edo bigarrenkari bezala erabiltzen dituztenak eta, azkenik, laguntzaile ihartu edo expresio lexikalizatuak dituztenak. Azkeneko multzoan ez du GZeko adibiderik eman, baina lehen eta bigarren multzoetan bai. Hona hemen berak ateratako datuak<sup>18</sup>:

a) Laguntzaile emankorrekoak (OAK ez du halakorik)

Mis. \**ezan* 17 vs *egin* 2

TBI: \**ezan* 2 vs *egin* 1

BK: *egin* 1

Azgu: \**ezan* 5 vs *egin* 3

Lauko: \**ezan* 2 vs *egin* 0

b) Laguntzaile sasi emankor eta bigarrenkariak:

OA: \**ezan* 44 vs *egin* 59

#### 8.1.5. **-i/-tu vs. Ø**

Ekialdeko eta mendebaldeko euskalkien arteko desberdintasun garrantzitsuenetako bat subjuntiboan, ahaleran eta aginteran aditzoina edo partizipioa erabiltzean dago. Gn aditzoina ia galdurik eta forma fosildu eta hikako aginterazko forma batzuetan badago ere (*hor konpon, puska zak*). Mounolek (2007) azaltzen duenez, *-i* partizipiodun aditzoina galdurik zegoen XVI. menderako.

<sup>17</sup> Guk hartutakoez gain, gehiago ere hartu ditu: Isastiren salvea, Zegamako doktrina, Oikiako doktrina, Goierriko platika eta Kardaberaz.

<sup>18</sup> Guk erabili ez ditugun lanetako adibideak (ik. 14 oharra) ez ditugu jarriko.

GZean, adibide bat (behintzat) aurkitu dugu -i partizipiodun aditzaren aditzoina erabiltzen duena, baina agintera izanik arkaismo bat izan daiteke eta gainera posible da *bidaldu* izatea *bidali* beharrean :

AzGu: *vidal eçaçu*

-tu partizipiodun aditzetan, GZean oraindik batzuetan mantentzen da aditzoinaren erabilera, baina partizipioa ere erabiltzen da. Uste orokorra eta asko frogatua da partizipio eta aditzoinaren bereizketa euskalki guztietan egiten zela, baina XV. mendetik aurrera, mendebaldeko (G., B. eta A.) euskalkietan aditzoina galtzen joan da partizipioaren mesedetan. Euskalki hauen artean, G. izan da beranduen egin duena berrikuntza hau (ik. Lakarra 1985a, Mounole, 2007)

GZeko testu zaharrenetan (XV-XVI. m.) ez da lekukotzen adibiderik, dauden aditzek ez baitute aditzoin-partizipio (*eman, egin* gisako aditzak dira) bereizketa egiten. XVII. mendean hasten dira lekukotzen partizipio-aditzoin oposaketa duten aditzak eta ondoko adibideetan<sup>19</sup> ikusten dugunez, partizipioaren erabilera hedatu xamar dago, nahiz eta oraindik orain aditzoina erabili.

TBI: *iracurri ezak*

AzGu: *escribi deguizudala, ecarri bezala, serbi dezagula, sofri yçacu*

LBp: *icasi biza.*

FPLu: *biurtu zaitez.*

Mounolek bere lanean (2007) ateratzen duen ondorioetako bat da *egin* laguntzailekun perifrasiak partizipioarekin sortu zirela eta *\*ezan* eta *\*edin*-ekiko analogiaz ager daitekeela aditzoina + *egin* egitura. GZean adibide gutxi batzuk badira aditzoina + *egin* egituradunak (ohar bedi dakarkigun lehen adibidean -i partizipiodun aditzaren aditzoina dela, hala ere, goraxeago esan bezala arkaismoa izan daiteke, agintera baita):

---

<sup>19</sup>Adibideak emateko, saihestu egin ditugu AM, Mis. OA eta Iraz. erlijiosoak izanik, arkaismoak mantentzen baitituzkete, gogoan izan, esaterako, gaur egun, Gure Aitaren errezuan, G eta B-n behintzat, *etor bedi* dugula. GZeko -i/-tu vs. Ø oposizioaren aditzez aditz egindako azterketa sakonago baterako, ik Mounole (2007)

TBI: *eçar eyt*

AzGu: *escribi deguizudala, gaztiga deguizudala*

Lan berean Mounolek azaltzen duenez, XVI.mendeko euskaran [aditzoina + \**edin*, \**ezan*] eta [partizipioa + *egin*] perifrasiak batzuetan perifrasi aspektual gisa agertzen dira, aoristoa adieraziz; beste batzuetan, ordea, perifrasi modal gisa, agintera, subjuntibo edo potentziala adieraziz. XVII. mendetik aurrera, aldaketa handi bat jasango zukeen euskarak eta aspektua adierazteari utzi eta modua adieraztera bakarrik igaro zen. GZean, tamalez, oso gutxi dira XVI.mendeko lekukotasunak, baina dugun apurrean ez dugu Mis.etik kanpo perifrasi aspektual gisakorik aurkitu.

### 3.2.7. –e pluralgileaz

Euskal adizkietan agertzen diren pluralgileetatik bat *-e* da. Diakronikoki begira, zalantzak zalantza, honen alomorfoztat hartuko genituzke *-de* eta *-te* ere. Egungo euskalkietan Nor-nork eta Nor-nori-nork saileko adizkietan nork 3. pertsona plurala denean, bi pluralgile daude: *-te* eta *-(i)e*; biak \**-de* batetik eratortzen dira (honen jatorriaz, ik. Gómez 1994).

Gaur egungo gipuzkeran (erdialdeko euskaraz, batez ere), bi pluralgileak aurkitzen ditugu (ik Zuazo, 2008:191). GZean, ordea, ez dugu *-te* pluralgiledunik topatu:

BK: *dioe, debeela (...) herreguten, acompañacen debe*

AZGu: *debela* (haiek, ‘monjak’), *esan digue ...*



#### 4. Ondorioak

